



DONE JAKUE BIDEA ERROMATAR GALTZADATIK

Lautadatik "Vía Trajana iter XXXIV" igarotzen zen, hau galtzada erromatarra zen, eta Burdigalatik (Burdeos) Asturicara (Astorga) zihoan bidea zen. Mendeetan zehar, bidaiari ugari ibili izan dira hemendik, haien artean Santiagora zihoazen erromesak. Hauek Europatik etotzen ziren eta Arabara San Adriango pasalekutik sartzen ziren, eta Aguraingo galtzadarekin bat egiten zuten.

Tunelaren hegoaldeko atetik sartuz gero, Lizarreta izeneko saroi batera helduko gara, eta eskubitara Aitzgorrira doan bidezidorra aurkituko dugu. Galtzada Portu zaharrera heltzen da, urkaren gaina izeneko, han zonaldean oso ohikoak ziren bidelapurak hiltzen baitzituzten. Jeisten jarraituz gero, bidea bitan banatzen da, Galarretarantz doana batetik eta Zalduondora doana bestetik, azken hau Zumarrandiko zelaiguneraino eramaten gaitu. Honaino kotxez hel daiteke Zalduondotik. Zalduondora heldu baino lehen, errepidearen alde batera, Aistrako San Julian eta Santa Basilisako ermita topatuko dugu. Kotxez egin beharrean bide hau oinez ere egin daiteke, errepidearen ondotik doan antzinako galtzadatik.

Zalduondon Lazarraga Jauregia aurkituko dugu, gaur egun museo etnologikoa. Hemendik Agurainerantz abiatuko gara, **Erdoñanatik**, bertan Donemiliagako basiliza topatuko dugu antzinean Donemiliagako udaletxea izan zena. **Agurainen** San Lázaro eta la Magdalena ospitalaren paretik pasako gara, herrian Santa Maria elizaren aldamenetik sartzeko. Handik, kale nagusian gaudela, galtzadak Gurutzokiko basilizara eramango gaitu, gaur egun kanposantuko kapera. Hemendik aurrera, ibilbidea desberdina izango da oinezkoentzat eta bizikletaz doazentzat. Erromar galtzadaren ibilbidea jarraituz, edo errepidez egin daiteke, guk bisitatu gabe utzi ezin daitezkeenak aipatuko ditugu, eta bakoitzak ibilbidea egiteko modua aukera dezala.

Gazeon San Martín eliza topatuko dugu, XIII. mendekoa. XVI. mendeko oso pintura interesgarriak ditu. **Ezkerekotxako** San Roman eliza ere XIII. mendekoa da, XII. mendeko portadarekin. **Alegria-Dulantzi** ondoan, 1337an fundatutako herria, Henaioko kastroa topatuko dugu, burni garaikoa. Galtzada Aiarako herriskatik igarotzen zen, gaur egun desagertua egon arren, bertako Santa Maria eliza, XIII. mendekoa zutik dirau. Alegria-Dulantzin San Blas eliza daukagu, XVI. mendekoa eta gotikoa. **Burgelu** ondoan, 1337an fundatua, Arraraingo eremua aurkituko dugu, bertako San Juan eliza, XII. mendekoa, gaur egun kanposantuko kapera da. Burgelun XV-XVI mendeetako San Pedro eliza aurkituko dugu. Hemengo bidea herria baino zaharragoa da, eta Gazetako herritik igarotzen zen, bertan San Martin de Tourseko eliza aurki dezakegu. Galtzada Gasteizerantz jarraitzen du, **Villafrancatik**, eta bertan San Andres eliza bisita dezakegu, XVI. mendekoa. Hemendik **Estibalitzeko** santutegira igoko gara, Arabako bihotza, eta XII. mendeko eliza erromanikoa ikusi ahal izango dugu. Estibalitzera oinez hel gaitezke Villafrancatik edo kotxez **Argandoñatik**, bertan XIII. mendeko eliza erromanikoa bisita dezakegu. Estibalitzetik antzinako ardoaren eta arrainaren ibilbidea ere igarotzen da, gaur egun seinalizatutako GR38 ibilbidea. Antzinean ibilbide honetan zamalariak ibiltzen ziren Errioxatik Bizkaiara ardoa ematen, eta handik Errioxara arraina ekartzen. Ibilbide hau oinez egin daiteke, Arbuloko postaseko bidearekin bat egin arte. Bide erdian **Oreitia** topatuko dugu eta bere eliza ederra, XIII. mendeko San Julian eta Santa Basilisa eliza, XVI. mendean handitutakoa.

